



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2024ko azaroaren 22a

138. ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- 11-24/MOC-00145. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Ebroko Konfederazio Hidrografikoari exiji diezaion berehala ekin diezaion Nafarroako ibaiak drainatzeari eta ibilguak garbitzeari. Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioak aurkeztu du (3. or.).
- 11-24/MOC-00147. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita egin beharreko izapideak abiaraz ditzan "Vianako Printzea" sariaren izena "Vianako Printzesa" izan dadin eta Errege-familia saria emateko ekitaldira gonbida dezan. Irene Royo Ortín andreak aurkeztu du (4. or.).
- 11-24/MOC-00134. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak errefusatu egiten baitu Immigrazioaren eta Asiloaren Europako Paktua. Mozioa erretiratzea (5. or.).

F SAILA:

Galderak:

- 11-23/PES-00471. Galdera, Nafarroako Ubidearen bigarren fasea egiteko lankidetzahitzarmena, Nafarroaren eta Estatuaren artekoa, berritzeari buruzkoa. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egin du (6. or.).
- 11-24/PES-00472. Galdera, Zizur Nagusiko ikastetxeetarako proiektatutako sukaldeari buruzkoa. Eneka Maiz Ulaiar andreak egin du (7. or.).
- 11-24/PES-00473. Galdera, ahozko galderak geroratzeko eta beste kontseilari bati esleitzeko arrazoiei buruzkoa. Ángel Ansa Echeagaray jaunak egin du (8. or.).
- 11-24/PES-00474. Galdera, Klima-aldaketari eta Energia-trantsizioari buruzko martxoaren 22ko 4/2022 Foru Legearen helburuei buruzkoa. Félix Zapatero Soria jaunak egin du (8. or.).
- 11-24/PES-00475. Galdera, Bixente Nazabal Sunsundegui enpresako kontseilari hautatu izanari buruzkoa. Juan Luis Sánchez de Muniain Lacasia jaunak egin du (9. or.).
- 11-24/PES-00476. Galdera, Iruñean Maristen etxadian babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzeari buruzkoa. Juan Luis Sánchez de Muniain Lacasia jaunak egin du (10. or.).
- 11-24/PES-00477. Galdera, ETBren emanaldiak zaintzeari buruzkoa. Cristina López Mañero andreak egin du (10. or.).

—11-24/PES-00478. Galdera, Osasun Departamentuaren azpiegituren eta obren egoerari buruzkoa. Leticia San Martín Rodríguez andreak egin du (11. or.).

I SAILA:

Planak, komunikazioak eta programak:

—11-24/DPGC-00001. Nafarroako Foru Komunitatearen egoerari buruzko politika orokorreko eztabaidaren ondorioz Osoko Bilkurak 2024ko azaroaren 15ean onetsitako erabakiak (12. or.).

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

11-24/MOC-00145. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita Ebroko Konfederazio Hidrografikoari exiji diezaion berehala ekin diezaion Nafarroako ibaiak drainatzeari eta ibilguak garbitzeari

NAFARROAKO ALDERDI POPULARRA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko azaroaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita Ebroko Konfederazio Hidrografikoari exiji diezaion berehala ekin diezaion Nafarroako ibaiak drainatzeari eta ibilguak garbitzeari.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2024ko azaroaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Popularraren talde parlamentarioaren eledun Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko. Mozioaren jarraipena Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Batzordeak eginen du.

Zioen azalpena

Ur uharrek ezin konta ahalako uraldiak eragin dituzte azken hamarkadotan Nafarroako ibaietan; ondorioz, uholdeak eta gainezkaldiak gertatu dira.

Ohikoa da gainezka egitea urtero-urtero Ebro ibaiak eta haren ibaiadarrek, batik bat Argak eta Egak eta horien adarrek. Gaienezkaldi horien ondorioz, kalteak pairatu dituzte ibai horien ertzetan diren herriek.

Ia ehun dira euriteak, uraldiak eta uherrak direla-eta kalteak eta uholdeak pairatu dituzten herriak.

Errealitate horiei begira, udal administrazio asko, bai eta ibaietako ibilguetatik gertu diren etxebizitza, merkataritza, enpresari eta nekazaritza-ko organizazioak ere, kritikak eta protestak adierazten ari dira ibaien ibilguen drainatze eta garbiketa ezagatik. Ebroko Konfederazio Hidrografikoaren eskumenekoak dira lan horiek. Horren ondorioz, urak ez du behar adina lekurik hondakin horiek guztiak hustu ahal izateko (lohiak, sedimentuak, zaborrak...); hondakin horiek uraren joana oztopatzen dute eta haren abiadura moteltzen, emariak gainezka egiteraino.

Ibai-ohreak ez drainatzea, batez ere Ebro ibaian, arazoaren parte bat da. Ibai horretan eta bere ibaiadarretan, gainera, ikus daiteke ertzak babesik gabe daudela, alboko babes-dikeen mantentze ezagatik.

Egoera horren ondorioz, urteetan zehar ibilguetan landaredi oparoa pilatu da ibaietako ertzetan eta are erdigunean ere. Horrek legarrak metatzea dakar, eta legar horiek irlatxoak eratzen dituzte eta abiadura moteltzen dute, eta ura hustea eragozten.

Erabaki-proposamena

1. Nafarroako Gobernua premia-tzen da Ebroko Konfederazio Hidrografikoari exiji diezaion berehala ekin diezaion Nafarroako ibaiak drainatzeari eta ibilguak garbitzeari, hori egin ezean uraren zirkulazioa oztopatzen ahal delako eta, ondorioz, uholdeak eta kalteak eragin.

2. Nafarroako Gobernua premia-tzen da inbentario bat egin dezan, udalekin eta organizazioekin elkarlanean, Ebroko Konfederazio Hidrografikoaren eskumenekoak diren jarduketako zona sentikorren gainekoa, Espainiako Gobernuari igortzeko.

3. Nafarroako Gobernua premiatzen da Transizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioari exiji diezaion kreditu bereziak gaitzea, Konfederazio Hidrografikoari transferituko zaizkionak, Nafarroako ibaietako ibilguetan drainatze eta garbiketa beharriaz erantzute aldera.

Iruñean, 2024ko azaroaren 8an

Eleduna: Javier García Jiménez

11-24/MOC-00147. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita egin beharreko izapideak abiaraz ditzan "Vianako Printzea" sariaren izena "Vianako Printzesa" izan dadin eta Errege-familia saria emateko ekitaldira gonbida dezan

IRENE ROYO ORTÍN ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko azaroaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Irene Royo Ortín andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita egin beharreko izapideak abiaraz ditzan "Vianako Printzea" sariaren izena "Vianako Printzesa" izan dadin eta Errege-familia saria emateko ekitaldira gonbida dezan.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Kultura, Kirol eta Turismo Batzordean izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2024ko azaroaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Alderdi Popularra talde parlamentarioari atxikita dagoen Irene Royo Ortín andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Kultura, Kirol eta Turismo Batzordean eztabaidatzeko:

1990ean Vianako Printzea Saria sortu zen; 1993tik 2015era arte lotuta egon zen Felipe Bor-

boikoaren irudiarekin, saria emateko arduraren baitzuen Vianako Printzea zen aldetik eta, azkeneko aldiran, jada errege den aldetik. Erregea bertan egotean, zeremoniak proiektio nazionala izatea lortzen zuen.

Baina 2015ean, Uxue Barkos andrea lehendakari eta Geroa Bai, EH Bildu eta IU gobernukide zituen gobernua Nafarroako Jauregira iritsi zenean, saria errege-etxetik deslotu zen, eta ildo horretatik jarraitu dute María Chivite andrea lehendakari izan duten beste bi gobernuek.

Saria antolatze modu berri horrek, "intimoa-go", ez da foru-mugetatik haratago heltzen, eta, beraz, ez du balio Nafarroa kanpoan balioan jartzeko, ez eta zeremonian esparru ezberdinetako pertsonak eta pertsonalitateak eta Estatuko botereen ordezkariak elkartzeko ere.

Sariaren oinarrietan esaten den legez, sari horrek, saridunen merezimenduak inolaz ere erdeinatu gabe, xede du "Nafarroarekin lotura berezia duten pertsona edo erakunde garrantzitsuek kulturaren edozein esparrutan egindako lana aitortzea"; beraz, ekitaldiak ez baldin badu bertara erakartzeko bestelako ziorik, nekez izanen da interesgarria foru-erkidegotik kanpo bizi direnentzat. Izan ere, saria Leireko San Salvatore monasterioan emateko ekitaldiari buruzko albisteek oihartzun handiagoa lortzen zuten, gure foru-erkidegoa sustatzeko hainbat proiektu bano.

Hori guztia dela eta, erabaki hau proposatzen dugu:

1. Nafarroako Gobernua premiatzea egin beharreko izapideak egin ditzan "Vianako Printzea" sariaren izena "Vianako Printzesa" izan dadin.

2. Nafarroako Gobernua premiatzea saria emateko ekitaldia Leireko San Salvatore monasterioan egin dadin.

3. Nafarroako Gobernua premiatzea Erregefamilia saria emateko ekitaldira gonbida dezan: Leonor infanta, Felipe VI.a erregea, Leticia erregina eta Sofia infanta, gutxienez ere.

Iruñean, 2024ko azaroaren 14an

Foru parlamentaria: Irene Royo Ortin

11-24/MOC-00134. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak errefusatu egiten baitu Immigrazioaren eta Asiloaren Europako Paktua

MOZIOA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko azaroaren 18an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Jasotzat ematea Javier Arza Porras jaunak aurkeztutako mozioa erretiratu izana. Horren bidez Nafarroako Parlamentuak errefusatu egiten du Immigrazioaren eta Asiloaren Europako Pak-

tua. Mozioa 2024ko urriaren 31ko 125. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2024ko azaroaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

F saila:
GALDERAK

11-23/PES-00471. Galdera, Nafarroako Ubidearen bigarren fasea egiteko lankidetzeta-hitzarmena, Nafarroaren eta Estatuaren artekoa, berritzeari buruzkoa

MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko azaroaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egindako galdera, Nafarroako Ubidearen bigarren fasea egiteko lankidetzeta-hitzarmena, Nafarroaren eta Estatuaren artekoa, berritzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko azaroaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Miguel Bujanda Cirauqui jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Ubidearen bigarren fasea egiteko lankidetzeta-hitzarmena, Nafarroaren eta Estatuaren artekoa, noiz aurreikusten duzue berritzea?

Iruñean, 2024ko azaroaren 8an

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

11-24/PES-00472. Galdera, Zizur Nagusiko ikastetxeetarako proiektatutako sukaldeari buruzkoa

ENEKA MAIZ ULAIAR ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko azaroaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Eneka Maiz Ulaiar andreak egindako galdera, Zizur Nagusiko ikastetxeetarako proiektatutako sukaldeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko azaroaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa taldeko foru parlamentari Eneka Maiz Ulaiar andreak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren babesean, eskatzen du Nafarroako Gobernuak honako galdera hauei idatziz erantzun diezaien.

Berriki Hezkuntza Departamentuak jakinarazi du Zizur Nagusiko hiru ikastetxe publikoek partekatuko duten "in situ" sukalde bat egiteko asmoa duela. Bestalde, jakin dugu Zizur Nagusiko Udalak haur-eskola handitzeko asmoa duela, plaza gehiago sortzeko asmoz.

Egitasmo horri buruzko xehetasunak eskatzen ditut:

– Sukalde hori noiz egingen da?

– Zein kokaleku izanen du? Lehendik dauden instalazioak baliatuko dira, edo instalazio berri bat eraikiko da?

– Eremu horrek zenbat toki harrapatuko du?

– Gaur egun dagoen patioaren eremuari eragingo dio?

– Kontuan hartuta haur-eskola handitzeko asmoa dagoela, nola uztartuko dira bi obra horiek?

Iruñean, 2024ko azaroaren 11n

Foru parlamentaria: Eneka Maiz Ulaiar

11-24/PES-00473. Galdera, ahozko galderak geroratzeko eta beste kontseilari bati esleitzeko arrazoiei buruzkoa

ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko azaroaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak egindako galdera, ahozko galderak geroratzeko eta beste kontseilari bati esleitzeko arrazoiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko azaroaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Ángel Ansa Echegaray jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Kontseilariak UPN talde parlamentarioak aurkeztutako 11-24/POR-00366 ahozko galdera geroratu du, eta EH Bildu talde parlamentarioak aurkeztutako 11-24/POR-00368 ahozko galdera Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariari esleitu dio. Zergatik?

Iruñean, 2024ko azaroaren 11n

Foru parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

11-24/PES-00474. Galdera, Klima-aldaketari eta Energia-trantsizioari buruzko martxoaren 22ko 4/2022 Foru Legearen helburuei buruzkoa

FÉLIX ZAPATERO SORIA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko azaroaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Félix Zapatero Soria jaunak egindako galdera, Klima-aldaketari eta Energia-trantsizioari buruzko martxoaren 22ko 4/2022 Foru Legearen helburuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko azaroaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Félix Zapatero Soria jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Zer ekimen, proiektu eta kronograma abiarazi du edo abiarazi gogo du Nafarroako Gobernuak Klima-aldaketari eta energia-trantsizioari buruzko martxoaren 22ko 4/2022 Foru Legeak ezartzen dituen helburuak betetze aldera?

Iruñean, 2024ko azaroaren 12an

Foru parlamentaria: Félix Zapatero Soria

11-24/PES-00475. Galdera, Bixente Nazabal Sunsundegui enpresako kontseilari hautatu izanari buruzkoa

JUAN LUIS SÁNCHEZ DE MUNIAIN LACASIA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko azaroaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Juan Luis Sánchez de Muniain Lacasia jaunak egindako galdera, Bixente Nazabal Sunsundegui enpresako kontseilari hautatu izanari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko azaroaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Juan Luis Sánchez de Muniain jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

– Jasota al dago Sodenak Sunsundegui enpresako administrazio-kontseiluan dituen ordezkariak eragozpenen bat aurkeztu izana Bixente Nazabal kontseilari hautatzeari buruz?

– Jasota al dago Bixente Nazabalek Sunsundeguiko administrazio-kontseiluko kidearena baino garrantzitsuagoa den bestelako izendapenen bat —kontseilari delegatua, lehendakariordea...— lortu izana? Baiezkoan, noiz eta zer prozeduraren bidez egin zen?

Iruñean, 2024ko azaroaren 12an

Foru parlamentaria: Juan Luis Sánchez de Muniain Lacasia

11-24/PES-00476. Galdera, Iruñean Maristen etxadian babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzeari buruzkoa

JUAN LUIS SÁNCHEZ DE MUNIÁIN LACASIA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko azaroaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak egindako galdera, Iruñean Maristen etxadian babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko azaroaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxi-

kita dagoen Juan Luis Sánchez de Muniáin jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

– Zergatik ez da oraindik hasi Iruñeko Maristen etxadiko etxebizitza babestuak eraikitzen?

– Atzerapenak zerikusirik al du etxebizitza babestuak esleitzeko prozeduran izandako akatsekin?

– Zertan da prozesu hori?

– Aurreikusitakoaren arabera, noiz hasi eta noiz bukatuko dira obrak eta noiz emanen dira etxebizitzak?

Iruñean, 2024ko azaroaren 12an

Foru parlamentaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

11-24/PES-00477. Galdera, ETBren emanaldiak zaintzeari buruzkoa

CRISTINA LÓPEZ MAÑERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko azaroaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina López Mañero andreak egindako galdera, ETBren emanaldiak zaintzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko azaroaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Cristina López Mañero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

– Nola zaintzen du Nafarroako Gobernuak ea ETBren emanaldi guztiek errespetatzen dituzten Nafarroaren errealitate politikoa, soziala eta instituzionala eta Nafarroaren ikurrak eta nortasuna?

– 2016tik gaurko egunera arte horren gaineko kezarik izan al da? Baiezkoan, eman hori jasotzen duen dokumentazioa, halakorik bada.

Iruñean, 2024ko azaroaren 13an

Foru parlamentaria: Cristina López Mañero

11-24/PES-00478. Galdera, Osasun Departamentuaren azpiegituren eta obren egoerari buruzkoa

LETICIA SAN MARTÍN RODRÍGUEZ ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko azaroaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Leticia San Martín Rodríguez andreak egindako galdera, Osasun Departamentuaren azpiegituren eta obren egoerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko azaroaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Leticia San Martín Rodríguez andreak, Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Zein da, gaur egun, 2024ko Nafarroako Aurrekontu Orokorretan partidak dituzten Osasun Departamentuaren azpiegituren eta obren egoera?

Iruñean, 2024ko azaroaren 14an

Foru parlamentaria: Leticia San Martín Rodríguez

I saila:
PLANAK, KOMUNIKAZIOAK ETA PROGRAMAK

11-24/DPGC-00001. Nafarroako Foru Komunitatearen egoerari buruzko politika orokorreko eztabaidaren ondorioz Osoko Bilkurak 2024ko azaroaren 15ean onetsitako erabakiak

Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoa betetzeko, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezela Nafarroako Foru Komunitatearen egoerari buruzko politika orokorreko eztabaidaren ondorioz Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2024ko azaroaren 15ean onetsitako erabakiak.

Iruñean, 2024ko azaroaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Nafarroako Foru Komunitatearen egoerari buruzko politika orokorreko eztabaidaren ondorioz Osoko Bilkurak 2024ko azaroaren 15ean onetsitako erabakiak

Lehenbizikoa.

1.- Nafarroako Parlamentuak honako hauek egiteko konpromisoa hartzen du: bizikidetzaren, errespetuaren eta berdintasunaren sustatuko du Nafarroako esparru eta toki guztietan eta pertsona guztien giza eskubideekiko errespetuaren defendatuko du.

2.- Nafarroako Parlamentuak gaitzetsi egiten ditu ETA talde terroristak eragindako hilketak eta indarkeria, terroristei espetxetik irteten direnean egindako errekonozimendu eta gorazarre ekitaldi guztiak eta horiek hauteskunde-zerrendetan nahiz erakunde publikoetan sartzeari.

3.- Nafarroako Parlamentuak, halaber, gaitzetsi egiten du gizartearen gertatzen den indarkeriazko egintza eta adierazpen oro, bereziki emakumearen aurkako indarkeria eta generoa, sexu-joera, arraza edo ideologia politikoa direla-eta gertatzen dena.

4.- Nafarroako Parlamentuak adierazpen-eta prentsa-askatasunarekiko, kazetarien lan inde-

pendentearekiko eta informazioa-aniztasunaren sustapenarekiko konpromisoa adierazten du.

5.- Nafarroako Parlamentuak adierazten du kezkatuta dagoela gero eta sarriago gertatzen direlako gizartearen ezegonkortzea eta sumina eragitea bilatzen duten gezurrak eta desinformazioa, batez ere sare sozialetan, eta Nafarroako Gobernuak premiatzen du Nafarroako gizarte osoaren alfabetatze mediatikoa susta dezan, batik bat kolektibo zaurgarrienen artean.

6.- Nafarroako Parlamentuak botere-banaketa errespetatzeko eta errespetarazteko konpromisoa hartzen du, botere-banaketa sistema demokratiko batean oinarri-oinarrizkoa den aldetik.

Bigarrena.

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du aurrera egin eta gizarteratzeko eskubidea sendotu dezan; hartara, Gobernuak premiatzen du:

1.1 Enplegurako pizgarriak hobetu ditzan, egin den ebaluazioan jasotako gomendioekin bat.

1.2 Lan-merkatuan sartzeko moduan dauden pertsonen enplegurako eskubidea bultzatzen lagunduko duten mekanismoak jar ditzan.

1.3 Arrisku egoeran eta/edo gizarte-bazterketa egoeran dauden pertsonen akonpainamendu soziala indartuko duten neurriak ezar ditzan eta trebakuntza pertsonal eta sozialeko baliabideak nahiz baliabide okupazionalak hobetu ditzan, pertsonen gizarteratze-ibilbideetan aurrera egiaz egin ahal izan dezaten.

2. Enplegu-politika aktiboak sendotzea elkarriketa sozialaren esparruan, funtsezko tresna diren aldetik gizarte-bazterketako egoeran dauden pertsonen enplegarritasuna handitzeko, bai eta orientazio- eta bitartekaritza-eredu berria ere, askoz ere pertsonalizatuagoa.

Hirugarrena.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Hartu beharreko neurriak hartzea Nafarroako Funtzio Publikoaren Estatutuaren testu berri bat taxutzeko xehez eraturako mahaiek lanean jarraitzeko, halako moduan non erantzuna emanen zaien nafarren beharrezkoen araberrako administrazio moderno, humanista, malgu, efiziente eta eraginkor baten beharrezkoen, hori baita administrazioa egotearen arrazoi nagusia, betiere administrazioaren zerbitzuko langileen eskubideak errespetatuta.

2. Egin beharreko lanen egutegia ezar dezan, non inplikaturako eragile guztiek parte hartuko baitute. Adosten den testua Parlamentuan erregistratuko da, eztabaidatu eta bozkatzeko.

Laugarrena.

- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du bizikidetzaren baketsua, aniztasunarekiko errespetua eta giza eskubideen defentsa sustatzeko ekintzak indartu ditzan, gorroto-diskurtsoak ugaltzen ari baitira.

- Nafarroako Parlamentuak gorrotoa sustatzen eta bultzatzen duen ordezkari publikoen adierazpen politiko oro gaitzesten du, gorroto horren oinarrian zernahi ere dagoen: jaioterria, arraza- edo etnia-jatorria, sexua, erlijioa, sinesmena edo iritzia, sexu-orientazioa edo -identitatea nahiz beste edozein baldintza edo inguruabar pertsonal edo soziala.

- Nafarroako Parlamentuak gaitzetsi egiten du gorrota sustatzen eta bizikidetzaren demokratikoa gaizkitzen laguntzen duten gezurrak eta mezuak prestatzea eta hedatzea.

Bosgarrena.

1.- Nafarroako Parlamentuak berdintasunaren arloan sustaturako legeak garatzeko eta baliabideak paratzeko konpromisoa hartzen du, azpimarra jarrita Gizonen eta Emakumeen arteko Berdintasunerako Plan Estrategikoaren garapenean eta plan horren lau ildo estrategikoetan.

2.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du gobernantza-eredu ireki eta feminista gara eta susta dezan, beharrezkoen sozial eta politiko berriei erantzunen diena, zertarako eta esparru politiko-instituzionala herritarrei eta eragile politiko eta sozialei hurbilazteko.

Seigarrena.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

- Despopulatzearen aurkako borrokarako eta landa garapenerako foru legearen proiektuak aintzat har ditzan Nafarroako Udala eta Kontzejuen Federazioak egiten duen parte-hartze prozesuaren ondorioak, eta despopulatzearen aurkako borroka beharrezkoa duen zeharkako ikuskera jaso dezan.

- Etxebizitza Eskuratzeko Plana zehaztu dezan 5.000 biztanletik beheitiko udalerrietarako, Tentsiopeko Etxebizitza-eremuen Aitorpenetik automatikoki kanpo geratu baitira.

- Nafarroako Kontuen Ganberak egiten dituen gomendioekin bat, Pirinioen Plan Estrategikoaren ebaluazio osoa egin dezan eta eredu hori despopulatze-arriskuan dauden beste eremu batzuetara eramanean dezan.

- 2025ean hiriarteko garraioaren bi linea, gutxienez ere, lizita ditzan eta esleitzeko dauden linea guztiak legegintzaldi honetan esleitzen ditzan.

- Landa eremuetan belaunaldien arteko erreleboa erraztera bideraturako neurri zehatzak eta lehen sektorea nahiz baso-kudeaketa jasangarria sustatzeko neurriak bultzatzen ditzan.

Zazpigarrena.

1. Klima aldaketari aurre egiteko Nafarroaren ibilbide-erria eta Nafarroako 2030erako Energia Planaren sakontzea. Jarraipenerako eta kontrolerako tresnak, eta erreferentziakoak.

2. Klima aldaketaren interpretaziorako gune bat sortzea: ibiltaria, interaktiboa eta klima aldaketaren gaineko dibulgaziorako, Nafarroa osoan barrena ibiliko dena.

3. Etxebizitzen eta eraikin publikoen zaharberri-tze efizientea bultzatzen jarraitzea.

4. Garapen Sozial Jasangarriaren eredu ekonomikoari buruzko Europako legedia egokitzea.

5. Europar Batasuneko zuzentarauak arau bidez albat lasterren garatzea eta betearaztea –denak, baina bereziki trantsizio ekologikoarekin lotutakoak–.

6. Energia-komunitateak bultzatzea.

7. Mugikortasun jasangarriaren aldeko apustu zalantzarik gabearekin jarraitzea, Nafarroan Mugikortasun Elektrikoa Bultzatzeko Agendaren bidez, Nafarroako Mugikortasun Jasangarriaren 2018tik 2030era bitarteko Plan Zuzendarian sakonduz.

8. Intermodalitatearen sustapena bultzatzea, bidaiaren eta salgaien garraioen arteko trukeak optimizatzen abiatuta.

9. Heldu diren urteotan Moves Planari jarraipena eman dakion eskatzea, mugikortasunaren elektrifikazioaren aldeko apustu irmoaren erakusgarri.

10. I+G+Bren aldeko apustua egitea energia alternatiboen sorkuntzaren eta biltegiatzearen arloan; esaterako hidrogeno berdearen aldekoa.

11. Albait lasterren abiaraztea Nafarroako Trantsizio Energetikoaren Agentzia.

12. Ekonomia Zirkularren Hub-a eratzea, enpresen, hezkuntza-entitateen eta zentro teknologikoen ahaleginak batuko dituen, prestakuntza aurreraturako eta Navarra Zirkular ekimenaren esparruan proiektu estrategikoak garatzeko.

13. Bultzatzea, lehen sektorearekin batera, nekazaritza birsortzaileko, laborantza ekologikoko edo elikadura osasungarri eta jasangarriko ekimenak, bai eta tokiko eragile ekoizleen sustapena eta babesa eta merkaturatze-kanal laburreko neurrien garapena ere, elikadura-subiranotasunean jarrita begirada.

14. Landa-berrikuntzako ekimenak edo digitalizazioa garatzea, eremu horien despopulatuaren aurka borrokatzeko eta landa-eremuetan bizi-kalitate duina bermatzeko ardatz estrategiko diren heinean.

Zortzigarrena.

1. Profesionalen, talde parlamentarioen, sindikatuen, lanbide-elkargoen, paziente-elkarteen eta osasun-erlako enpresen eskutik lan egitea osasun-sistema publikoa modernizatzeko eta Osasun Sistema Nazional osorako ezarritako erronkak gainditzeko hartu beharreko erabakiak hartzeko, ahal den adostasun handienarekin hartu ere.

2. Osasunari buruzko foru lege berria aurreratu eta onestea, Paziente Kroniko eta Pluripatologikoren Estrategia berreskuratzea eta Zainketa Aringarrien Estrategia bultzatzea.

3. Itxaron-zerrendak Murrizteko Plan Integralarekin jarraitzea. 2024an abiarazitako plana ebaluatzea, estrategia osagarri berriak jasota, premia klinikoan oinarritu eta digitalizazioarekin, laguntza-profil berriekin eta bereizmen handiko zirkuituekin optimizatutako laguntza orientatuko dutenak.

4. Oinarrizko osasun-laguntzaren eginkizuna bultzatzea, laguntzaren lehen maila den heinean. Zeregin horretan lagunduko duten profil sanitarioak eta ez-sanitarioak zabaltzea. Eskuragarri dauden baliabideak optimizatzea, lurralde osoan laguntzarik hoberena bermatzeko. Oinarrizko Osasun-laguntzako hitzorduen eskuragarritasuna hobetzea eta jada ezarritako neurriak zabaltzea

(esaterako, telefonogune adimentsua) foru-erkidegoko kontsultategi handienetara.

5. Betetzen zailak diren lanpostuak identifikatzea eta horietarako pizgarriak ezartzea, hala Oinarrizko Osasun-laguntzan nola ospitalekoan.

6. Eta, profesionalei, lan-baldintzei eta talentua erakartzeari dagokienez, 2023 eta 2024ko lan-eskaintza publikotik heldu diren deialdiak onesten jarraitzea; kontratazio-eskaintzak hobetzea eta optimizatzea; betetzekoak zailak diren lanpostuei buruzko araua garatzea, C eta D mailako osasun arloko langileen lanbide karrera garatzea, mugikortasunaren arloko araudi berria aplikatzea behin onetsita, eta talentua erakartzeko eta atxikitze beharrezkoak diren neurri guztiak hartzea, baita arau-arlokoak ere.

Bederatzigarrena.

Nafarroako Parlamentuak uste du funtsezkoa dela Nafarroako Gobernuak bultzatzen jarraitzea bere lidergo estrategikoa Nafarroaren industria-ereduaren planifikazioari eta zuzendaritzari dagokienez. Hortaz, Parlamentuak ongi ikusten du Gobernuak ekimena hartzea Nafarroako industriari buruzko lege berezi bat izan dezan, gure erkidegoaren industria-politikan eragiteko esparru bat taxutzeko xedez, honako hauetan oinarrituta:

– XXI. mendeko lehiakortasun-faktore nagusiak bultzatzea: I+G, giza kapitala, digitalizazioa eta energia garbi, merke eta bertan ekoiztia.

– Espezializazio adimentsua balio-kate osoak ezartzeko, lurraldean zehar banatuak eta eskualdean nahiz herrian sustraituak.

– Zirkularitatean, ekonomiaren supertzean eta balio sozial erantsian oinarritutako garapen jasangarria.

– Ekonomiaren demokratizazioa, honako hauen bidez: ekonomia sozialaren sustapena, elkarrizketa soziala, organizazioen barne demokrazia eta kapitalaren banaketa, enpresa txiki eta ertainei nahiz autonomoei lagunduta.

Alegia, apustu egitea industria-eredu aurreratu, berdinzalea, ingurunearekiko begirunetsua, behar den moduko enplegu-sortzailea, sortzen den balio erantsia banatzeko gauza dena, bai eta gure erkidegoa kohesionatzeko ere, eta, hortaz, nafar guztiei ahalbidetuko diena politika ekonomiko orok bilatu behar duen helburua lortzea: hobeki bizitzea.

Hamargarrena.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du albait lasterren eta osorik gara

dezan Klima Aldaketari eta Trantsizio Energetikoari buruzko Foru Legea, gure erkidegoak klima aldatetaren aurka ekiteko daukan ibilbide berekia den aldetik.

Hamaikagarrena.

Nafarroako Parlamentuak Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako Departamentua premiatzen du Etxebizitzaren Behatokia sor dezan, etxebizitzaren merkatuaren egoeraren jarraipena egiteko tresna izan dadin.
